

Orduan eta gaur be, txistua protagonista

Durangaldeko txistulariak 47. urtez ospatzekotan dira euren eguna. Ermuari egokitxu jako aurtenguaeren prestaketia eta otsailaren 23 an plazan eingo dabe txistulariok euren agerraldia. Honei laguntzeko musiko, dantzari eta abeslari ugari batu ditxuzte hilabete luzez biharrian diharduten Suharri txistulari taldeko partaidiak. Zapatu horretako iluntzian plazaratzen zarien guztixok, txistua eta danboliña protagonista dirala, euskal makro-kontzertu edarraz disfrutatzeko beta izango dozue. Honetxan atxakixiak, Ermuan eta Mallabixan txistua eta danbolin joten urtietan ibillitxako Alejandro Zubizarreta eta Eloy Zelaietakin egon gara egunotan.


Txistuari lehenengo putzok etaratzen gaztetan hasi ziran bixok, 20 urte betetzeke ekela. Alejandrok Santa Cecilia Bandan tronpetia jotzen eban eta silbotia nork jo ez euala, 18 urtekin hasi zan tesitura bajuko txistu hori ezagutzen. Bixak dira maixu haundixekin ikasitxakuak: Alejandro Luis Albizu bere tiuakin eta Eloy Eibarko Laspiurrekin hasi eta Luis berarekin jarraitxu eban. Halantxek gogoratzen dau berak: “*nik ekierie Laspiurrekin eñ neban, musiko ona eta fiñe. Alejandro Aldekoa, Berrizko txistulari famaue be hantxe ikasitxakue da. Ni gero Luis “Txikixa” z ibilli nintzan apurren bat ta gero tabernie be bagenduken ta ezin ba norberak nahi daben moduen dedikau, bihera eñ bihar izaten gendun ta lotute, lotute...*” Alejandro, oster, benetan lotuta Santixauetan egoten zan: “*guretako jaixak lotuak izaten zian,*

s u j e z i ñ u a . Goxian hasi ta g a b e r a i ñ o , lehenengo txistua, gero Bandan tronpetia... Kantau be eitxen neban nik. Baiña txarrena haren aurretikua zan, ze jotoke entsaiu eñ bihar izaten da asko, batu

danok ta jo ta jo ta bengta bengta... hantxe ekin, eta ekinan puruan, etara! Oiñ eguna ailegaueran pozik jo be bai gero, eh!”.

Baiña ez zan gauza bardiña txistua Ermuan edo Mallabixan jotia. Txistulariak honetan ermintxaz ermintxa eta erromerixaz erromerixa ibiltzen ziran trapata trapata tra biribilketa soiñuak zabalduaz; auzune asko izan eta Mallabixa ugarixa izan da santu eta haren omeneko jaixetan. Hamar ermintxa ezagutu ditxuez mallabitxarrak eta erromerixa eguna izaten zan gazte jendiandako alkar ezagutzeko atxakirik apraposena. “*Ermintxa danetan “Aurrekua” eta “Banakua” eitxen ziran, neskak etara ta... Bazkalostien Alboradie jotzen zan. Etxeik-etxe juten zan txistue jotzen eta etxaurrietan dantzan eitten zan, etorritako konbi-dauk eta danak mahaittik altxau ta kopiaz eta edan eitxen zan*” gogora dakar Eloyk. Goiza eta eberdiostia txistua eta danboliñandako ziran, “*meza ostien... txistuek oh, beste zeozek ekan, gauza edarra zan*”. Arratsalde partera soiñua jotzen zan. “*Baiña hori soiñuori inpernuko zera...soiñue zan ta eguerdixen ta meza ostien pixkaka-pixkaka sartzen jun zan*”, diño albotik Mariluzek, Eloyren andriak. Eta dantzan sendo eñ ostian, iluntzi aldera bidietan neska-laguntzen eñ bihar. Baiña ez zeuan kuidaorik ze hurrengo domekan, jaiero legez, Trabakuen erromerixa egongo zan.


Ermuko txistulariak biharrik gehixen Santixauetan eitxen eben. “*Pasakalles luziak izaten zian gañera. Hasieria Patakonian ta Ostatutik zihar palazioraiñok. Hemen geratu eitxen giñan. Zergaitxik? Ba aldapia hasten zalako ta amasa pixkat be hartu eñ bihar!*”. Meza nagusixan, gigante eta kabe-



Euskal Birusa eta Suharri taldeek antolatutako erakusketa Zubiaure 5ean dago ikusgai

AHOLKULARITZA FISKAL ETA LEGALA
URIARTE IRAEGI, S.L.

Komentuko 3
Telefonoa: 943 17 33 87 • 48260 ERMUA (Bizkaia)





Abadiño. 1956ko martxoaren 19an. Durangaldeko lehenengo Txistulari Eguna

suduei dantzan erain, arratsaldian erromerixan... jai girua nun txistularixak han. Nork ez ditxu ikusi Aste Santuko prozesiñuetan santo laguntzen, Eguen Zuri egunian oilar harrapatzailliak zuzentzen edo Komuniñuetako umiei Elizako saloietara txokolate usainari segika laguntzen? Eta zerren truk? Ba urteko 400 pezetako soldatatuagaitxik eta Udalaren aginduetara beti gañera. Eloyk, oster, Mallabixan *"irabazi? Ezebez. Meriendatxuren bat edo zeozer. Baiña gustau eiñ jata beti ta pozik eiñ izan dot. Oiñtze be bateron batek deitzen badoste, jun eitxen naz"*.

Bixak dira Txistularixen Alardietan parte hartutakuak, Alejandro gaiñera martxan ipintzeko lehen billera haretan egon zan, 1956. urtian. San Jose egunian ospatzen zan beti, jai izaten zan eta. Entsaiua lehenengo, pasakallesa eta mezia; meza ederra, kantautakua. *"Misa de Perozzia a 3 voces, pentsau kultura kontuetan zenbat bajau garen!"*. Partaide guztixak gero alkarrekin bazkaltzen eben *"herri batzutan bodie lakoxie izaten zan, banketie, atzamarrak be mizkatzeko laiñekue!"*. Lehen-lehen Aiuntamentuetan txistulari plazia urtetzen eban eta *"bizimodue etara zeinkien txistulari modure"*. Gaur egun gauzak asko aldatu dira, *"ordu en ez zeuen besteik ta oiñ danetara daoz umiek partidute"*. Orduan eta gaur be, txistua protagonista.

Estibalitz González

Txistularien alardea

1956an hasi eta gaur arte, Durangaldeko txistulariak urtero biltzen gara alarde batean; urte bakoitzean herri bati dagokio kontzertua antolatzea. Hau da Ermuari egokitzen zaion hirugarren aldia. SUHARRI txistulari taldekook ilusio guztia jarri dugu aurtengoa emanaldi ezberdin, berezi eta ahaztezina izan dadin.

120 pertsona baino gehiagok parte hartuko dugu kontzertu honetan: dantzariak, musikariak, abesbatzak, bertsolariak, txalapartariak eta nola ez, txistulariak.


"San Miguel" espata-dantzan tradizioa eta dantza "modernagoak" uztartu ditugu; Sorozabalek **Gemikari** eskaini zion **kantatak** ile guztiak puntan jarriko dizkizuela ziur gaude; **Su Ta Gar** taldeko abeslariak, **Aitor Gorosabelek**, bere ukitua emango dio *"Haika mutil"* doinu herrikoiari; *"Tango plaentxitarra"* ren eskutik Argentinako xarna eta probokazio guztia ekarriko dugu; *"Lau teilatu"* abestiarekin ametserako parada zabalduko dugu, oraingoan txistuaren soinuarekin bada ere...; soinu goxoa benetan, eta ez baduzu sinesten adi entzun *"Aitona"* piezan dagoen bakarkako saioa...

Hauek dira larunbatean entzungo dituzuen abestietako batzuk... Plazara hurbilduz gero bertan gelditzeko hamaika aitzakia aurkituko dituzu, ziur!

Ainhoa Delgado

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**
- *Astelehenetik ostiralera getan zabaltzen dugu*



*Euskara eta euskaltegia
egin biak zureak*



Gure Etxea z/g (Ongarai)
Tel. 943 17 09 25